

Etsaiak gutaz gu baino gehio dakienean zaila da eraso egitea, hortara gindoazen. Gazako bidean sionismoarekin trafikatzan zuen bigarren bukea blokeatzeko aukeraren parean, flotilla bitan banatu zen. Esaera zaharra berriz ere gure aurka: banatu eta garaitu itzazu; eta Flotilla zatitu zen.

Gauez nahiko lan gure artean talka ez egiteko, ez genbiltzan Israelgo armadaren aurka egiteko egoeran. Bidea eten zigutenean barkuetako sukaldeko laban guztiak botatzea zen protokoloa, xaboi ponpak egiteko tresna zen gure arma bakarra.

Gure gorputz xuri eta europeokoak dardar egiten dute Israelgo estatuaren makinaria parean dutenean. Dronak diren edo ez direnaren paranoia, hasiera baten katxondeorako ere eman duena. Txori mekaniko horiek gero eta gertuago izatean broma gutxi, azken Flotillako erasoak eta gero. Iluntasunean, metro bakarrera, armadaren barkua. Gure barkuko beste kideak esnatu, abisua eman, gure burua babestu, salbamendu-txalekoak jarri, telefonoak eta labanak itsasora botatzeko prestatu, ondoko barkuetatik datozen SOS bengalak goitik eta gure parean dugun alimaleko barkua gure zain.

Mugikorrari kasu egin behar ez nion arren, ikusi dut bertze barkuetan tiroak egon direla esaten dabiltzala, kristal batzuk hautsiz. Nire buruari gomazko pilotak direla esaten jarraitzen dut, lantxa azkarren argiak eta arrabotsa entzuten dudana bitartean.

Gure kapitainak bere lekuan jarraitzen du, geldirik. Baina, etsaiak kontrako norantza hartu bezain pronto, eskapo egin nahian barkua martxan jarri du. Bere esperintziak lagunduta doike. Baina etsaia, genozida izan arren, ez da tontoa. Argi dago Flotillako buruen bila zeudela. Arratsalde horretan bertan tripulazio aldaketak egon dira, eta ez dute buru bat ere moztu gabe utzi. Gure barkuetako pantailan segituan ikusi dugu barku horiek izan direla lehenak erortzen. Ohar bat honen harira: ez dago infiltraturik gabeko borrokarik.

Gainontzekoak Kretarantz goaz, fite. Protokoloa jarraitzearen zalantzan, bakoitza bere barkuaren zilborrera begira, nazioarteko uretatik ateratzeko miliak zenbatzen. Zenbat ostia da milia bat?

Gauean grabatzerik ez dagoela dakitenez, eguzkia atera orduko desagertu dira. Goiza eta mugikorretako mezuak garrasika ditugu. Gaiztoengandik ihesika genbiltzanean, denak mugikorrari begira geundela konturatu naizen bigarren aldia denez, mugikorra utzi eta prismatikoak hartu ditut. Momentu batean, Euskal Herrian, egoerari buruz guk baino gehiago zekiten.

Partxisean bezala, azken hamar laukietan ginenean, gure kideen bahiketen lehen baieztapen mezuak. Euskal Herriko delegazio erdia erori da, baita ontzitxoeren herena ere. Gure kideen "mayday" alarmaren eta erabateko baieztapena izan artean, ezer pasatu ez denaren pentsamendua. Motorra sabotageatu eta tripulazio guztia ongi dagoela telefonoz erran diguten arte, sabeleko gorapiloa ezin askatu. Gure buruak salbu sentitzean elkarri besarkatu gara.

Gure itsasontzi berean doan palestinarrek ez du hainbeste ospatzeko. Bere amatxiren Gazako etxera bueltatu nahi du, hitzez elkar ulertzen ez garen arren. Bere mina eusten saiatu bitartean, bahituen minaren kontu hasi dira konspirazioak.

Aukerarik onena atxilotu eta Greziara deportatzea litzateke. Pare bat egunetan kontzentrak egin eta, bi egunetara, ezer pasatu ez balitz bezala gure lan bizitzekin jarraitzea. Beste aukera posible bat, Israelera eraman eta aurrekoan bezala bost eguneko inkomunikazioa da. Motorra sabotageatu duten itsasontziko kideek kontaktu berri digute, atxilotzeko zorian zeudenean, hamar egunetako medikamenduak hartzeko erran dietela eta, hala bada, seguraski ere (eta hau ere espekulazioa da), Israeleko bidean daudela. Oraingoan, garraio bukeen ibilbidea moztu izanaren delitupean, egun bateko barku bidaia eta inkomunikazioa. Bahiketa bitartean gose greban egonen zirela adierazi zuten gehienek. Aukera honetan ere, gure herriaren duintasuna erakustea tokatuko litzaiguke berriz, ziur naiz hor egonen garela. Azken konspirazio aukerak indarra galduz joan da eguna, barkuak inkomunikatuak eta sabotageatuak, noraezean egon ahalko zirelaren aukera zabaldu da; aldiz, Open Arms-eko kideak barkuetara hurbiltzean, hutsak zeudela baieztatu dute. Egun batzuetan pasatu dena argituz joanen da, baina gure jendearekin zer egiten ari diren ez jakitea gu zigortzeko bertze modu bat da.

Israeleko ente genozida hori zer egiteko gai den ederki dakigu eta, gogoan dut, mundua europear batzuen bidea gogorki moztearen ikusle pasibo den bitartean, Palestinan nolako mina egiten ahal duen. Hori izan zen ekintza bera atzera botatzeko arrazoietakoa bat, gu atxilotu eta Gazako herria betiko lehertzea.